


# 2000ko JARDUERAK



## 0. Sarrera

UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEA 1999ko abenduaren 22an sortu zen Donostian, Eusko Legebiltzarrak onartu eta martxoaren 1eko Euskal Herriko A.ren A 42 zenbakian argitaratutako otsailaren 12ko 3/1988 Bazkunei buruzko Legearen araura egokituz.

Elkartearen helburuak bere Estatutuen 2. artikuluan adierazten dira: Udalei dagokien eskumeneren arloetan kultura, kirola, euskara eta garapen sozio-ekonomikoa bultzatu Euskal Herriko udalen laguntzaz eta erakunde hauei lagunduz.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua Elkarteari Identifikazio Fiskaleko zenbakia zion.

2000. urteko urtarrilaren 11ean Eusko Jaurlaritzaren Justizi, Lan eta Gizarte Segurantzako Azterlan eta Araubide Juridiko Zuzendaritzak Erabaki bat hartu zuen, UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEA erakunde honek duen Elkarteen Erroldan inskribatuz.

Aipatutako Zuzendaritzaren ebazpena honela zion bere bigarren Oinarri Juridikoetan:

***"Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legean xedatutakoaren arabera, erakunde eskatzailea lege horren aplikazio eremuan sartua dago, ez da Elkarte debekatua, eta, bere estatutuen arabera, lortu nahi diren helburuak eta erabilitako baliabideak bidezkoak dira, Legeak eskatzen dituen gaitasun betebeharrak eta betebeharrak formalak betetzen dituelarik".*** Eta honen ondorioz ***"UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEA izeneko Elkartearen eratzea Elkarteen Erroldako 1. Sekzioan inskribatzea"*** erabaki zuen.

## **1. Lehen urratsak**

Presupuestoaren zati handiena, barne antolamendu eta azpiegituran gastatu ziren. Ahaleginik nabarmenena, Iruñeko Udalbideko egoitza erosten gauzatu zen, edozein erakunde abian jartzeko oinarritzko eta beharreko tresna eta ezinbesteko baldintza. Egoitza, Iruñeko Kale Berrian kokatua dago, Erreinu Zaharreko hiriburuaren bihotzean.

Halaber, aipatzekoa da elkarte bat lagundu genuela: **Euskal Herriko Liga 9.000 euroekin** Nazio Batuen Aurrean bekario bat lanean jarduteko euskal kulturaren defentsan.